



## GJH ESKOLARA

GJH eskolara hezkuntza-proposamen dinamiko eta erakargarria da, Garapen Jasangarrirako Helburuak eta 2030erako Agenda ikastetxeekin eta, batez ere, Lehen Hezkuntzako neska-mutilekin partekatzen eta, horrela, haien partaidetza soziala zein herritartasun aktiboa sustatzeko.



Proiektu honek lberdrolaren bultzada du, eta enpresa anitzeko #COMPANIES4SDGs ekimenaren barruan dago kokatuta. Ekimen horren bidez, euren langileak GJHetan inplikatzeko aukera eskaintzen zaie enpresei, erraza baina indar harrigarrikoa den boluntariotza korporatiboko jardueraren bidez.

50 minutuko dinamikaren bitartez, boluntarioek neska-mutilei eta irakasleei informazioa eman eta abian jartzen dituzte, Garapen Jasangarrirako Helburuak ikus-entzunezko eta partaidetzazko modu dibertigarrian bete ditzaten. Jarduera horri esker, neska-mutilek GJHak ezagutzen dituzte, bizileku dugun munduari buruz hausnartzen dute eta egunero garatu ditzaketen ekintzetarako proposamenak egiten dituzte, denon artean “mundua salbatzeko” harri koskorra ekarri dezagun.

Material guztiak euskaraz eta gaztelaniaz ditugunez, nahi duen hizkuntza aukeratuko du boluntarioak.



## BOLUNTARIOENTZAKO KITA

GJH eskolara proiektuak “boluntarioentzako kita” eskaintzen du, xehetasunez dago garatuta, norberak azaltzeko modukoa da eta erraz interpretatzen da. **Hartara, boluntarioen eta enpresa interesdunen partaidetza sustatzen da.** Honako hauexek dira “boluntarioentzako kitean” dauden materialak:



- ✓ Boluntarioentzako eskuliburua.
- ✓ Ikasgelarako aurkezpena. Bertan, bi bideo daude aukeran, ikasleen adinen arabera.
- ✓ Bi jarduera eta ikasgelan garatzeko fitxak.
- ✓ Sari txikia, neska-mutilek GJHak iman orogarrian eraman ditzaten etxera.
- ✓ Horrez gain, **USB memoria**. Bertan, tailerra egiteko beharrezko artxibo guztiak agertzen dira.



## Noiz hasiko gara?

Proiektuari buruzko edozein informazio eta atxikimendua eskatzeko, Nieves Gamizekin harremanetan jarri besterik ez duzu. Tel. 944 002 800 / [ngamiz@cebek.es](mailto:ngamiz@cebek.es)

Lankidetzapeko proiektua: